

Jaiotzak % 5,6 jaitsi ziren 2023ko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

Jaiotzen % 12n amak 40 urte edo gehiago ditu

2023ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEn 3.113 jaiotza izan ziren, hau da, iazko aldi berean baino % 5,6 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Jaiotza kopurua % 9,7 jaitsi da Araban, % 6,9 Bizkaian eta % 1,3 Gipuzkoan. Zehazki, Bizkaian 1.580 haur jaio ziren, Gipuzkoan 1.042 eta Araban 491.

Hileka aztertuta, jaiotza gehienak urtarrilean izan ziren, 1.057 (% 34), eta, ondoren, martxoan, 1.055 (% 33,9); otsailean, 1.001 haur jaio ziren (% 32,2).

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, 35-39 urteko amen taldea da nagusi, jaiotzen % 34,9rekin. Ondoren, 30-34 urteko taldea dago, % 33,1ekin. Nabarmenezkoa da hiruhileko horretan 25 eta 29 urte bitarteko amek izandako haur kopurua % 13,1 izan zela, hau da, 40 urte edo gehiago zituzten amek (% 12) baino gehiago; iazko hiruhileko berean, aldiz, 40 urte edo gehiagoko ama gehiago izan zen 25 eta 29 urte bitarteko ama baino.

Ama ezkongabeen ama izateko adina ama guztiena baino txikiagoa da, eta nabarmenezkoa da ama horien % 10,1ek 25 urte baino gutxiago zituela; ehuneko hori 3,3 puntu handiagoa da ama guztien multzoan.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztizkoaren % 50,7 izan ziren, hau da, 2022ko lehen hiruhilekoan baino gutxiago (% 52,6). Bizkaiak Euskal AE osoak baino balio handiagoak ditu (% 55,4); Araban eta Gipuzkoan, berriz, ehuneko hori txikiagoa da (% 49,1 eta % 44,3, hurrenez hurren).

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2023ko lehen hiruhilekoan, jaiotzen % 49 (1.525 haur) lehenengo haurrak izan dira; 1.177 (% 37,8) aurretik beste haur bat zuten familietara iritsi dira, eta hirugarren edo ondorengo haurren ehunekoa % 13,2 izan da, hau da, 2022ko hiruhileko berean baino 0,4 puntu gehiago.

Atzerriko nazionalitatea duten amen ehunekoa % 30etik gorakoa da

2023ko lehen hiru hiletan Euskal AEn izandako jaiotzen % 31,1en, amak atzerriko nazionalitatea zuen; hau da, ehuneko 2,6 puntu gehiago 2022ko hiruhileko berean baino. Araban, atzerriko nazionalitatea zuten amen proportzioa % 40,3 izan zen; Gipuzkoan, % 29,9, eta, Bizkaian, % 28,9.

Euskal AEn bizirik jaioak, amaren bizilekuaren lurralde historikoaren, sexuaren, adinaren, egoera zibilaren eta nazionalitatearen, hurrenkeraren eta jaiotza-hilabetearen arabera (1). 2023/I

	Oraingo hiruhilekoa (2023/I)		Aurreko hiruhilekoa (2022/IV)			Aurreko urteko hiruhileko bera (2022/I)		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza	KOP	%	Gehikuntza
Euskal AE	3.113	100,0	3.470	100,0	-10,3	3.298	100,0	-5,6
Araba / Álava	491	15,8	554	16,0	-11,4	544	16,5	-9,7
Bizkaia	1.580	50,8	1.742	50,2	-9,3	1.698	51,5	-6,9
Gipuzkoa	1.042	33,5	1.174	33,8	-11,2	1.056	32,0	-1,3
Sexua								
Mutilak	1.587	51,0	1.781	51,3	-10,9	1.681	51,0	-5,6
Neskak	1.526	49,0	1.689	48,7	-9,7	1.617	49,0	-5,6
AMAREN ADINA								
= 24 urte	213	6,8	257	7,4	-17,1	241	7,3	-11,6
25 - 29 urte	409	13,1	460	13,3	-11,1	390	11,8	4,9
30 - 34 urte	1.029	33,1	1.136	32,7	-9,4	1.083	32,8	-5,0
35 - 39 urte	1.087	34,9	1.175	33,9	-7,5	1.168	35,4	-6,9
= 40 urte	375	12,0	442	12,7	-15,2	416	12,6	-9,9
Amaren egoera zibila								
Ezkondua	1.534	49,3	1.683	48,5	-8,9	1.562	47,4	-1,8
Ezkon gabea	1.579	50,7	1.787	51,5	-11,6	1.736	52,6	-9,0
Amaren nazionalitatea								
Espainiarra	2.146	68,9	2.402	69,2	-10,7	2.357	71,5	-9,0
Atzerrikoa	967	31,1	1.068	30,8	-9,5	941	28,5	2,8
Jaiotza-ordena								
Lehenengoa	1.525	49,0	1.750	50,4	-12,9	1.632	49,5	-6,6
Bigarrena	1.177	37,8	1.238	35,7	-4,9	1.243	37,7	-5,3
Hirugarrena edo gehiago	411	13,2	482	13,9	-14,7	423	12,8	-2,8
Jaiotza-hilabetea								
Urtarrila	1.057	34,0				1.128	34,2	-6,3
Otsaila	1.001	32,2				1.056	32,0	-5,2
Martxoa	1.055	33,9				1.114	33,8	-5,3


(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2023ko Irailaren 11

Iturria: Eustat, Jaiotzen Estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak

Hilerokoa



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62